

` ` El nudo ´ ´

Lorena Ancona
Mariana Castillo Deball
Rodrigo Hernandez

Ana Navas

Fernando Palma

Jorge Satorre

Performance: Erick Beltrán

Comisariada por Manuela Moscoso

24.05.2019 - 30.07.2019

CarrerasMugica

CarrerasMugicak atsegin handiz aurkeztuko du, maiatzaren 24tik uztailaren 30era arte, *El nudo* (Korapiloa), Manuel Moscosok galeriako nabean komisariatutako aurreneko erakusketa, Lorena Ancona, Mariana Castillo Deball, Rodrigo Hernández, Ana Navas, Fernando Palma eta Jorge Satorre artisten parte-hartzeaz. Gainera, inaugurazioko egunean, Erock Beltrán artistak performancea egingo du.

Korapilo bat, eusteko, oztopatzeko edo lotzeko balio duen egitura itxi bat. Neurtzeko unitatea, zenbait bideren gurutzaketa, edo hostoen sorburu den zurtoineko aldea. Korapiloa pertsonen eta gauzen arteko elkargune ukiezina ere bada; nahita egindako konplikazioa, araututako sistema baten fluxua eragozten duena, baina, aldi berean, bestela barreiatuta egongo liratekeen sistema horretako parteak egituraitzen eta baturik dituen. Korapilo guztietan bezala, bera eratzen duten hariak ez daude muturrik muturrera bat eginik, erditik baizik; horregatik, hasiera edo amaiera argia aurkitzea, sarritan, zeregin interesgarria izaten da.

Erakusketa hau korapilo bat da, hain zuzen, eta aldi mugatu batez aukera emango digu Bilbo zenbait arte-objektuekin lotzeko, aldi berean ibilbide afektibo eta profesionalen multzo batera eramango gaituzten objektuekin. Kasu honetan, hari nagusietako bat da erakusketa honek batuko dituen artistak -Lorena Ancona, Erick Beltrán, Mariana Castillo Deball, Rodrigo Hernández, Ana Navas, Fernando Palma eta Jorge Satorre- Mexikon jaio zirela, Mexikon bizi direla edo Mexiko Hirian ezagutu ditudala. Horrez gain, denbora eta bizitzako ibilbideak zeharkatzen ditu: 2005ean jarri zen abian, Jorge Satorre Madrilen ezagutu nuenean, eta 2018. urtearen amaierara arte zabaltzen da, orduan bisitatu bainuen Lorena Anconaren erakusketa, Mexikon duen galerian. Hala, Korapiloak praktika artistiko desberdinei egiten die dei: nirekin ere harremanean izan den espazio zehatz bati lotutako zazpi artelan dira.

Amarratze hori Mexikon ekoizten denaren adierazgarritzat hartzea absurdua litzateke. Hemengo artistek ez dute partekatzen identitateko ezaugarri koherenterik, are gutxiago irakurtzeko moduko ezaugarriarik edo ezaugarri finkorik. Hala ere, belaunaldi desberdinetakoak izan arren, haien lanek bestelako elkarguneak dituzte nahita egindako konplikazio honetan: arazo gisa aztertzen dute jatorriari edo jatorrizkoari buruzko diskurtsoak, zalantzan jartzen dituzte historiaren narratiba ofizialak, mikrohistoriaren ikasketan txertatzen dira, eta erantzuna ematen diete zenbait ikerketa-prozesuri: nola hartzen dituzten objektuek (bestelako) jakintzak sortzeko edo pizteko aukerak mugatzen dituzten narrazio ideologikoak.

Bestalde, Korapiloak une honetako bereizgarriei heltzen die, eta ekin egiten du, dela begirada afektibo batez, dela informatutako begirada batez. Erakusketa amaitu ondoren, bera eratzen duten hariak potentzialki gurutzatuko dira, bestelako oztopoak, bestelako korapiloak eta bestelako istorioak sortzeko. Azkenean, korapiloak askatzeko egiten dira.



Ikuspegi orokorra



Lorena Ancona. *Serpientes como pilares de la tierra (oeste)*, 2019. Zeramika (temperatura baxuan landuta), ur-care, pigmentu, lurra eta latex naturala. Neurri aldakorak.





Jorge Satorre. Sin título, 2019. 3 altzairu uzkurtua, (forja), 3 erenotz adar. Neurri aldakorrak.



Jorge Satorre. Sin título, 2019. 3 altzairu uzkurtua, (forja), 3 erenotz adar. Neurri aldakorrak.



Jorge Satorre. Sin título, 2019. 3 altzairu uzkurtua, (forja), 3 erenotz adar. Neurri aldakorrak.




Jorge Satorre. Sin título, 2019. 3 altzairu uzkurtua, (forja), 3 erenotz adar. Neurri aldakorrak.



Jorge Satorre. Sin título, 2019. Pagoa, zizelkatuta, 7 altzairu elementu (forja).



Ana Navas. *Nespresso*, 2014. Styrofoam eta paper *mâché*. 120 x 150 x 80 cm



Fernando Palma. *Si no fuera por estos momentos*, 2000. DVD, 00:08:48.





Rodrigo Hernandez. *Trayecto, Nudo*, 2019. Binilo pintura pareta gainean. Neurri aldakorrak.



Rodrigo Hernandez. *O passageiro 2*, 2018. Eskuz landutako letoia. 95 x 70 x 2 cm.



O passageiro 8, 2018. Eskuz landutako letoia. 60 x 40 x 2,5 cm



Rodrigo Hernandez. *Trayecto, Nudo*, 2019. Binilo pintura pareta gainean. Neurri aldakorrak.



Ikuspegi orokorra



Jorge Satorre. *Pezuñas de acero*. Altzairu (forja).





Lorena Ancona. *Serpientes como pilares de la tierra (este)*, 2019.
Zeramika (tenperatura baxuan landuta), ur-care, pigmentu, lurra eta latex naturala. Neurri aldakorrak.



Palma como centro y agua. Zeramika (tenperatura baxuan landuta), ur-care, pigmentu eta latex naturala. Neurri aldakorrak.



Lorena Ancona. *Serpientes como pilares de la tierra (norte)*, 2019. Zeramika (temperatura baxuan landuta), ur-care, pigmentu, lurra eta latex naturala. Neurri aldakorrak.



Ikuspegi orokorra



Ikuspegi orokorra



Mariana Castillo Deball. *Mathematical distortions*, 2019.



Mariana Castillo Deball. *Mathematical distortions, 39*. 2019. Eskiola, 16 x 22 x 28 cm (aprox).



Mariana Castillo Deball. *Mathematical distortions*, 35. 2019. Eskaiola, 30 x 20 x 23 cm (aprox).



Mathematical distortions, 35. 2019. Eskaiola, 38,5 x 26 x 23 cm aprox).



Mariana Castillo Deball. *Mathematical distortions*, 35. 2019. Eskaiola, 20 x 60 x 40 cm (aprox).



Mariana Castillo Deball. *Mathematical distortions, 35*. 2019. Eskiola, 21 x 35 x 34 cm (aprox).



Mariana Castillo Deball. *Mathematical distortions*, 35. 2019. Eskiola, 25 x 22 x 25 cm (aprox).



Mariana Castillo Deball. *Mathematical distortions*. 2019.



Erick Beltrán. Performance - CarrerasMugica galerian. Bilbon, 2019ko maiatzaren 25ean.



Erick Beltrán. Performance - CarrerasMugica galerian. Bilbon, 2019ko maiatzaren 25ean.

CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725